

PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA ENPRESEN FINKAPENA

Xedea	2019ko eta 2020ko ekitaldietako autoenpleguari buruzko dekretuetan babestutako enpresen jarraitutasuna bultzatzea eta haien finkapena indartzea.
Erakunde onuradunak	34/2019 eta 18/2020 Foru Dekretuen kontura "enpresak martxan jartzeko eta sortzeko laguntzak" diru-laguntza esleitu zitzaizen erakundeak.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:	<p>Diruz lagundu daitezkeen gastuzat hartuko dira 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko irailaren 30era bitartean gauzatzen diren ekintza hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresaren jarduerarekin lotutako marketin-plan bat egitea. • Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten digitalizazio-jardueretatik eratorritako gastuak. • Enpresa-jarduera hobetzeko prestakuntza-gastuak. • Laguntza tekniko espezializatuko zerbitzuak kontratatzearen ondoriozko gastuak, honako helburu hauek dituztenak: enpresaren bideragarritasuna hobetzea, edo merkatuan edo negozioaren garapenean duen kokapena hobetzen laguntzea, produktua, zerbitzua edo prozesua hobetzeko berrikuntza, nazioartekotzearen bideragarritasuna, erantzukizun soziala edo ingurumen-eragina. <p>Diru-laguntza honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira administrazio-kudeaketako eta zerga-, lan-, finantza- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu arruntak.</p>
Diru-laguntzaren zenbatekoa	100 eurotik gorako gastuen (BEZik gabe) fakturak baino ez dira diruz lagunduko . Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.000 euro izango.
Arautegia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 77/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa . Laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea erabiliko da.
Epeak.	<p>Ekintzak egiteko epeak: Diru-laguntza jasotzen duten ekintzak 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko irailaren 30era egin beharko dira</p> <p>Eskabideak aurkezteko epea eta modua Eskabideak aurkezteko epea 2021eko ekainaren 7an hasiko da, 8:00etan, eta 2021eko urriaren 1ean bukatuko da, 13:30ean.</p> <p>Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar dira https://web.bizkaia.eus/eus/hasiera "izapideak" en bidez. Horretarako, sinadura elektronikoa beharko da (Izenpe, NAN elektronikoa, sinadura elektronikoa aurreratua, B@KQ...).</p>